

1993ko URRIAREN 14ko BILKURA NAGUSIA

Lizartzan, mila bederatziehun eta laurogeitamahiruko urriaren hamalauean, gaueko bederatzia direnean, Alkatea: Belen Zabala Olano; Udalkideak: Jose Antonio Mintegi Arrate, Julian Zubeldia Aierbe, Mikel Zelaia Ezenarro, Castor Olaetxea Garaikoetxea, Ramon Bengoetxea Altuna eta Iñigo Arreseigor Bengoetxea; Idazkaria: Ana Jesus Zabala Garmendia eta beste hainbat herritar, Biltzar Nagusian bildu dira, gai hauek erabili direlarik:

AURREKO AKTAREN ONARPENA:

Alkateak, aurreko saioaren aktari ezer esatekorik badagoen galdetu du, eta inork ezer esatekorik ez duenez, aho batez onartu da.

MUÑO A BASERRIAREN GAIN DEMANDA:

IKUSIRIK.- Herri honetan kokatuta dauden "ondazilegi" diren lur batzuen erregistro egoera aztertzen dituzten, Udal honetako zerbitzuak bildutako agiriak, konkretuki, partikularren artean egindako, jabari transmisiorako salerosketa kontratoaren bidez, Muñoa baserriaren jabetzakoak diren bezela sartzen direnak.

IKUSIRIK.- Muñoa Baserriaren jabetzako "ondazilegi" lurri dagokienean bere ondasunen defentsarako, Udal honi zuzenbidean dagozkien neurri legalei buruz, Udaleko Asesoritza Juridikoak luzatutako txostena.

KONTUTAN HARTUAZ.- Erregimen Lokaleko Oinarriak erregulatzen dituen 7/85 Legearen 68.1.a artikulua dioenaren arabera, Udal honen obligazioa, bere eskubide eta ondasunen defentsarako, beharrezkoak diren ekintzak egikaritzeko.

KONTUTAN HARTUAZ.- Erregimen Lokaleko Oinarriak Erregulatzen dituen 7/85 Legearen 22.2.a j) artikulua arabera, ekintza

judizialen egikariketa onartzeko Udal Batzarrak duen ahalmena.

Guzti horregatik, Udal Batzarrari PROPOSATZEN ZAIO:

- 1.- Aipatutako herri ondasunen defentsarako, Muñoa Baserriaren jabetzakoak diren "ondazilegi" lurren erosle eta saltzaileen aurka, Zuzenbidean dagozkien gaintzekoez gain, sal-erosketa eskrituraren nulitate aitortzea lortzeko, ordena zibilean tokatzen diren ekintza judizialak egikaritzea.
- 2.- Udal honek, bere izenean emandako, auzitarako ahalmen orokorraren arabera, Udalaren defentsa letratua, aurreko abokatu eta prokuradoreei ematea:

ABOKATUAK: JUAN LANDA MENDIBE

LUIS URKIZA UGARTE

FELIPE GOMEZ ARRIARAN

PROKURADOREAK: Tolosako CARMEN CHIMENO RODRIGUEZ

Donostiako ISABEL MARIN CANO

Madrideko ENRIQUE DE ANTONIO VISCOR

- 3.- Udal honetako Alkatesa-Lehendakariari, ahalmenak ematea, erabaki honi dagozkion ekintzek aurrera emateko.

Proposamena, aho batez onartu da.

DESJABETZA ESPEDIENTERAKO ARKITEKTO IZENDAPENA:

Lizartzako Planeamenduko Laguntzazko Arauen 3. Areako, hau da: Iturri-

Aurre Etxea eta bere jabetzakoa, Desjabetza Espedientean, garai hartan, Udaleko Teknikaria zen, Pilar Amenabar Zabala, izendatua izan zen, Teknikari bezala.

Gaur egun, Teknikari horrek utzi egin du bere lana, eta horregaitik Udalak, 1.993ko Ekainaren 21ean ospatutako Ohizko Bilkuran, JOSE M^a BRAVO ALBIZU Jauna izendatu zuen, lan hori betetzeko.

Hori dela eta, JOSE M^a BRAVO ALBIZU Arkitektoa izendatzea proposatzen da, Nahitaezko Jabegokentzeetarako Gipuzkoako Lurralde Epai-Mahaiaren aurrean, Udaleko Teknikari bezela aritzeko.

Proposamena, aho batez onartu da.

MAILEGU ESKAERA:

Jarraiean, Udaletxeko Obren finantzaketarako, Euskadiko Kutxarekin, 15.000.000,- pezetatako mailegu hitzarmenaren kontratu proiektua irakurtzen da:

Oinarrizko bereiztasunak, hauek dira:

Zenbatekoa: 15.000.000,- pezta.

Urteko Interesa: MIBOR + 0,5% (Gaur egun 10,05%)

Komisioak: Hasierako 0,5%.

Amortizazio epea: 10 urte.

Berma: Udaleko Aurrekontu Arruntako Sarrerren oinarrizkoa: Gipuzkoako Foru Aldundiaren transferentzi arruntak: Zerga Itunduetako Partaidetza.

Bilkura etorritako Udalkideak, Udala osatzen duten, zazpiak direlarik, aho batez, aipatutako kontratu proiektua onartzea erabakitzen dute, eta behar den

epeaz, jendaurrean, akordio hau agertzeko, erreklamazioak egin ditzaten.

Aldi berean, Gipuzkoako Foru Aldundiaren bidez, Gipuzkoako Batzar Nagusian dagokion erakundeari, onar dezan, bidaltzea, eta Udal honetako Alkatesa-Lehendakari Andreari, Mailegu hau aurrera ateratzeko behar diren agiriak eta kontrato bera sinatzeko, baimentzea.

TOLOSAKO ABEREHILTEGIKO AURREKONTUAREN ONARPENA:

Jose Antonio Mintegi Arrate Udalkideak, Tolosako Aberehiltegi Mankomunitatearen 1.994 urterako Aurrekontua aurkeztu du.

Aurrekontua, 30.232.310,- peztatara igotzen da, eta hortik Lizartzari, BERREHUN ETA HOGEITASEI MILA ZAZPIEHUN ETA HIRUROGEITASEI (226.766,-) pezta ordaintzea tokatzen zaio.

Tolosako Aberehiltegi Mankomunitatearen 1.994 urterako Aurrekontua, aho batez onartu da.

TASAK:

Alkatesak, hitza harturik, zera dio:

Udal honek, 1.989 urtean onartu zituen, 1.990 urte ezkeroztik, Ur, Zakarrak eta Ibilgailuen zergagatik kobratu behar ziren tasa eta prezio publikoen tarifak.

Nahiz eta urte hartan, urtez urte, urteko IPC.aren %a igotzea erabaki, hiru urte igaro dira eta tasa eta prezio publiko hoiek, ez dute inolako igoerarik izan.

Hori dela eta, tasa eta prezio publiko hoiek, azken hiru urte hauetan izandako IPC.aren %a igotzea proposatu du, esanaz, Udala konsziente dela gaur egun dagoen krisialdiarekin baina, inolako igoerarik egiten ez bada, tasa eta prezio publiko hoiek, erabat desfasatuta geldituko direla.

Ramon Bengoetxea Udalkideak zera dio: Gaur egun dagoen krisialdia kontutan hartuz, ez zaiola bidezkoa iruditzen, herritarrentzat oinarrizkoak diren zerbitzuak, hau da: Ur eta Zakarren zerbitzuak igotzea. Ibilgailuen Zergaren tasa igotzea, nahiko egokia iruditzen zaiola, neurri batean, oinarrizko behar bat ez delako.

Gaia sakonki eztabaidatu ondoren, aho batez erabakitzen da:

UR eta ZAKARREN Prezio Publikoak ez igotzea.

Ibilgailuen Zergaren tasari, azken hiru urteotan IPC.ak izan duen % igoera aplikatzea. Horren arabera, honela geldituko lirateke, Ibilgailuen Zergak:

Potentzia eta Ibilgailu Mota:

a) Turismoak

2.000 - 2.400

5.400 - 6.400

11.400 - 13.400

14.200 - 16.700

b) Autobusak

13.200 - 15.500

18.800 - 22.100

23.500 - 27.600

c) Kamioak

6.700 - 7.900

13.200 - 15.500

18.800 - 22.100

23.500 - 27.600

d) Traktoreak

2.800 - 3.300

4.400 - 5.200

13.200 - 15.500

e) Atoi eta Erdi-Atoiak

2.800 - 3.300

4.400 - 5.200

13.200 - 15.500

f) Gainerako Ibilgailuak

700 - 850

1.200 - 1.450

2.400 - 2.900

4.800 - 5.700

9.600 - 11.300

ALKATETZAREN DEKRETUAK:

LUIS ZINKUNEGI AGIRRE Jaunari, Kale Nagusia, 29 - 2.gn solairuan obrak egiteko baimena eman zaio.

XANTI OLAETXEA KARRERA Jaunari, Aldatx Etxearen tximinie konpondu, goiko terrazako lurra berritu eta fatxada pintatzeko baimena eman zaio.

ANGEL GARRIDO ALONSO Jaunari, Goltzur Baserriari erretila egiteko eginiko eskabidea eta Teknikariaren txostena ikusirik, legeek zein hirigintzari buruzko arauak ezartzen dutenaren arabera.

IKUSIRIK.- Eraikuntzaren egoera oso latza denez, hau da: Egurrezko egitura ondatuta aurkitzen da eta egoera onera itzultzeko ustelduta eta hautsita dauden elemento askok ordezkatzeari behar du, teilatua ere ondatuta dago eta ittuteak ditu zenbait puntutan.

ERABAKI DU:

- 1.- Goltzur Baserria berreraikitzea izango litzatekenez zuzenena, SEI HILABETEKO epea ematea, premiazkoa den, eta gai den teknikariak idatzitako proiektu bisatua, Udal honen aurrean aurkezteko.
- 2.- Proiektu hori aurkeztu arte, teilatutik ura sartzea galerazi egin behar denez, teilatua berritzeko baimena ematea.

JOSE ANTONIO ARRUABARRENA Jaunari, Ipintza Baserrian teilatuko lata eta teile berriak jartzeko baimena eman zaio.

JOSE M^a AROZENA AGIRREZABALA Jaunari, Lezinea Baserrian erretila emateko baimena eman zaio.

PAKO LASA ETXEBERRIA Jaunari, Ainene Berri, 3.ko sukaldeko azulejoak aldatu, pixua margotu eta lehio berriak jartzeko baimena eman zaio.

LUIS AGINAGA Jaunari, Iturralde Etxeko teilatuaren garbiketa eta zinke emateko baimena eman zaio.

JUAN BAUTISTA SAN SEBASTIAN Jaunari, Toki Alai Etxearen Teilatuaren konponketa egiteko baimena eman zaio.

JOSE MANUEL ETXEBERRIA MAIZ Jaunari, Hirubide Etxearen fatxada pintatzeko baimena eman zaio.

JOSE MANUEL GARMENDIA GARMENDIA Jaunari, Kale Nagusia, 10.ean sukaldeko berrikuntza egin eta berogailua jartzeko baimena eman zaio.

INAXIO ZEBERIO ARTOLA Jaunari, Asuratxeberri Baserriaren birgaipean eta eraberritze obra orokorrak egiteko baimena eman zaio, baldintza hauekin:

Obrak amaitzerakoan zuzendariaren ziurtagiria aurkeztea beharrezkoa da, eta bizitzaren egoera hiri katastroan jasotzea beharrezkoa denez, hiri zergabilketaren altaren agiria ere aurkeztu beharra ikusten da. Honekin batera, obra berriaren aitorpena ere aurkeztuko da.

Materialen baldintzak: Estalkia: Teila zeramikazkoa. Fatxadak: Gaur egungo materialeak mantenduko dira (zuriberrituta). Zurgintza: Kanpoko leihoak egurrezkoak.

Ikuilua mantentzekotan, hemengo eta bizitzako komunetako urak, sukaldekoetatik bereiztuko dira, hauek septikara isurtzeko aurretik koipeak eta solidoak banantzeko arketa tartekatuko da.

Eta hitzegiteko beste gairik ez dagoenez, Alkateak, Batzarra amaitutzat eman du, gaueko hamarrak direnean.